

steilas

Irakasleen eskuorria

EAEko irakaskuntza
publikoa

2021-2022



www.steilas.eus



Irakasleen eskuorria

EAEko irakaskuntza publikoa

2021-2022

www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

Edukia

- 4 Baimenak eta lizentziak
- 5 Lanegunen ordutegia
- 5 Ordu-banaketa Lanbide Heziketako ordezkapenetan
- 8 Senideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentzia
- 9 Ordezkoen hurrenkera nola ulertu
- 9 Odol-ahaidetasunaren organigrama
- 10 Haurdunaldia
- 10 Erditzeko unea
- 11 Gurasotasun-lizentzia
- 12 Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?
- 14 Lan-istripuak, nola jokatu
- 15 Nomina (2021)

Baimenak eta lizentziak

Taulan azpimarratuta agertzen diren baimenak eta lizentziak, hartu baino 10 lanegun lehenago eskatu behar dira.

Baimenak eta lizentziak	Art.	Nork	Iraunaldia	€
Gaixotasuna edo istripua	39	KPBO	Medikuaren alta-agiria izan edo kontratua amaitu arte.	Bai
Gurasotasuna	40 41*	KPBO	18 aste. Beste 2 aste ume jaioberria ezgaitua bada edo erditze anizkoitza izan bada (bi aste gehiago seme-alaba bakoitzeko). Kontsultatu 11. orrialdea.	Bai
Adopzioa	40.2	KPBO	18 aste. Beste 2 aste bigarren umeagatik edo ume jaioberria ezgaitua bada. Adopzioa nazioartekoa bada, bidaia egiteko, 2 hilabete arteko baimena.	Bai
Edoskitzea	40.5**	KPBO	Egunero ordu bat, haurrak 12 hilabete izan arte. Orduak meta daitezke: 6 ordu = egun bat. Kontsultatu 12. orrialdea.	Bai
<u>Ezkontza/Bikotetza</u>	42	KPBO	20 egun natural, ezkontza-eguna barne. 6 urtetan ezin da berriz eskatu.	Bai
2. mailara arteko senideen ezkontza	42.3	KPBO	Egun bat (+2 egun natural, 150 km baino urrunago ospatzen bada).	Bai
Senideen gaixotasun larria edo heriotza	43***	KPBO	43. artikulua ez dago indarrean. Jarraibidea eguneratu zuten 2021eko maiatzaren 5ean. Kontsultatu 8. orrialdea.	Bai
Senideen gaixotasunagatik jardunaldia murriztea	44	KPBO	1. mailako senideak zaintzeko, harekin biziz gero, lanaldia erdira edo herenera murrizteko aukera, hilabete batez.	Bai
Nahitaezko betebeharrak	45	KPBO	Behar den denbora.	Bai
<u>Etxebizitzaz aldatzea</u>	46	KPBO	Bi lanegun (errolatu eta 15 egun naturaleko epean).	Bai
Ordezkaritza sindikala edo langileena	47	KPBO	Legediaren arabera.	Bai
Genero-indarkeriaren biktima	48	KPBO Emak	Osasun- edota gizarte-zerbitzuek zehaztutakoaren arabera.	Bai
Adingabeokoa, ezgaituak, edo 2. mailara arteko senideak zaintzea	49	KPBO	Lanaldiaren herena edo erdiaren murrizketa, adingabeak 12 urte bete arte.	Bai %
Gaixotasun kronikoak edo mugitzeko arazoak dituzten 2. mailara arteko senitartekoak zaintzea	50	KPB	Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran. 50 ordu ikasturteko, gehienez ere.	Bai
Lanpostuarekin erlazioaturiko ikasketak	51	K	Baimen-kopuru mugatua.	Bai
<u>Beste ikasketa batzuk</u>	52	K	Luzatu ezin den ikasturte bat.	Ez
<u>Azterketak</u>	53	KPBO	Egun natural bat (+2 egun, 150 km baino urrunago bada).	Bai
Administrazioaren barne-promoziorako probak	54	KPBO	Behar den denbora.	Bai
Medikuarenera joatea	55	KPBO	Behar den denbora. Erditzea prestatzeko, astero 4 ordu.	Bai
Hitzaldi, kongresu eta abarretara joatea	56	KPB	Behar den denbora, 5 egun arte.	Bai
Hautapenezko karguaren betebeharrak	57	KPB	Urteko ordutegiaren % 10, gehienez ere. Lanaldiaren herena edo erdiaren murrizketa.	Bai Ez
<u>Norberaren eginkizunak</u>	58	KPB (2)	Gehienez ere 4 hilabete, bi urtean behin.	Ez
<u>Ordaindu gabeko baimena</u>	59	K	Ikasturte osoa edo 6 hilabete (abuztua-urtarrila edo otsaila-uztaila), 5 urtean behin.	Ez
Urte sabatikoa	60	K	5 urteko zikloak: lehen 4 ikasturteetan lan, eta bosgarrenean, sabatikoa.	% 84
<u>Orduak murriztea</u> (Lan-hitzarmenean jasota, baimen edo lizentzietatik kanpo dago)	61	KBO K KB K	a) 59 urtekoek astean 2 eskola-ordu gutxiago. (LHko kidegoa). b) 60 urtetik gorakoek lanaldiaren 1/3eko murrizketa. (baldin eta bestelako kargu edo ardurarik ez badute). c) Urte osoko jardunaren murrizketa, lanaldiaren 1/3 edo 1/2. d) Ikasketa ofizialak egiteko, lanaldiaren 1/3eko murrizketa.	Bai Bai % %

Zehaztasunak: 2010-VII-16ko EHAA (39-61 artikulua).

K: karrerakoek, P: praktiketakoek, B: bakantetunek, O: ordezkoeak. (2): urte batez lanean egon direnek, etenik gabe.

* Gurasotasuna 11. orrialdean zehazten da.

** Edoskitzea 12. orrialdean zehazten da.

*** Gaixotasun larria edo heriotza 8. orrialdean zehazten da.

Haur eta Lehen Hezkuntza

Lanaldi-mota	Ordu-kopurua guztira	Irakastorduak (atsedenak barne)	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	7	5
Bost seiren	25	20	5	5
Bi heren	20	15	5	5
Erdia	15	12	3	4
Herena	10	8	2	3

Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Lanaldi-mota	Ikastetxeari arreta zuzena	Ikastetxean gutxienez egon beharreko orduak	Irakastorduak (zaintzak kanpo)	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	17-18	6-5	5
Bost seiren	25	19	14-15	5	5
Bi heren	20	15	11-12	4	4
Erdia	15	11	8-9	3	3
Herena	10	8	6	2	2

* Lanaldi-mota guztietan berdin puntuatzen da.

Ordu-banaketa Lanbide Heziketako ordezkapenetan

Demagun, udako esleipenetan zein ordezkagunean, LHko *Osasun eta Laguntza Prozedurak (1567)* espezialitateko jardunaldi osoko plaza bat honela irteten dela:

ASESE 7,6 ordu; OSLA 6 ordu; LELA 1,9 ordu; PLANES 1,9 ordu (GUZTIRA = 17,4 ordu)

Horietako modulu batzuk 2. mailakoak direnez –ASESE eta PLANES moduluak, hain zuzen ere– eta LHko 2. mailako ikasleak 3. hiru hilekoan enpresetara doazenez praktikak egitera, Lan Prestakuntza (*FCT*) modulua burutzeraz, ikasturtean 3 ebaluazioetan eman beharreko irakastorduak lehen 2 ebaluazioetan metatzen dira. Ondorioz, irakaslearen jardunaldiak 17/18 ordu baino gehiago izango ditu lehen bi ebaluazio horietan.

Horrek guztiak LHko irakasle ordezkoen artean nahasmena sortzen du, ez baitakite zein den bete beharreko jardunaldia.

Kontuan izanik ikasturteak 33 aste dituela, gure adibidearen arabera, bi modulu horiek horrela banatuko direla ondoriozta dezakegu:

- ASESE: OCBren arabera, modulu honi 252 ordu dagozkio, beraz:

$$252 \text{ ordu} / 33 \text{ aste (3 ebaluazio)} = 7,6 \text{ ordu (plaza perfilatzeko zenbatuko den ordu-kopurua)}$$

Ordu-kopuru hau 2 ebaluaziotan metatu behar denez, modulu honek astean izango duen lanordu-kopurua ondorengo izango da:

$$252 \text{ ordu} / 22 \text{ aste (2 hiruhileko)} = 11,45 \text{ ordu (borobilduz, 12 ordu).}$$

- PLANES: OCBren arabera, ordu modulu honi 63 ordu dagozkio, beraz:

$$63 \text{ ordu} / 33 \text{ aste} = 1,9 \text{ ordu (plaza perfilatzeko zenbatuko den ordu-kopurua)}$$

Ordu-kopuru hau 2 hiruhilekotan metatu behar denez, modulu honek astean izango duen lanordu-kopurua ondorengo izango da:

$$63 \text{ ordu} / 22 \text{ aste (2 hiruhileko)} = 2,86 \text{ ordu (borobilduz, 3 ordu)}$$

2. mailako orduak nola banatzen diren behin jakinda, ikasturtea honela antolatzen da:

	1. hiruhilekoan	2. hiruhilekoan	3. hiruhilekoan
ASESE	12 ordu	12 ordu	0 ordu
PLANES	3 ordu	3 ordu	0 ordu
OSLA	6 ordu	6 ordu	6 ordu
LELA	2 ordu	2 ordu	2 ordu
Guztira	23 ordu	23 ordu	8 ordu

Plaza honen titularrak baja, lizentzia edo baimenen bat hartuz gero, haren ordezkoa ikastetxera heltzen denean, zer egiten da? Ebaluazioaren arabera, era ezberdinetan kudeatzen da:

- Ordezkapena lehen edo/eta bigarren ebaluazioan gertatzen bada:

Lanpostu horrek astean 23 irakastordu izango ditu. Jardunaldi osoa 17/18 irakastordutakoa denez, ikastetxeak ordu gehigarri horiek kentzeko eskatu ez badu, ordezkoak eskatu beharko du. LHn, ahal den heinean, moduluak zatitzea komeni ez denez, ondorengo bi aukerak suerta daitezke:

23 orduen banaketa = 17 + 6

	A ordezkooak		B ordezkooak
ASESE	12 ordu	OSLA	6 ordu
PLANES	3 ordu		
LELA	2 ordu		
Guztira	17 ordu	Guztira	6 ordu (jardunaren herena)

23 orduen banaketa = 18 + 5

	A ordezkooak		B ordezkooak
ASESE	12 ordu	PLANES	3 ordu
OSLA	6 ordu	LELA	2 ordu
Guztira	18 ordu	Guztira	5 ordu (jardunaren herena*)

Laburbilduz, lanpostu honen ordezkapena egiteko Hezkuntzak bi irakasle bidali behar ditu ikastetxera:

- > Jardunaldi osoko irakaslea (17/18 irakastordu).
- > Jardunaldi hereneko irakaslea (6 irakastordu).
- Ordezkapena hirugarren ebaluazioan gertatzen bada:

2. mailako ikasleak praktikak egiten daudenez eta klase orduak murriztu direnez, ordezkooak 1. mailako moduluak besterik ez ditu izango eta, ondorioz, 8 irakastordu izango ditu, jardunaldiaren erdia izanik; eta kobratu ere horrela egingo du.

- Ordezkapena hirugarren ebaluaziora ere luzatzen bada:

Jardunaldi herenean dagoen ordezkoari kontratua etengo diote eta jatorriz osoan zegoenari kontratua aldatuko diote, jardunaldi murriztura pasatuz**.

Kasuistika oso zabala izan daiteke, plazak astean 19, 20, 21, 22, 24 edo 25 ordu izan baitezake. Ikastetxetik aukera ezberdinak eskaini ahal dizkiote ordezkoari. Legez, modulu banaketaren onarpena, ikastetxeko Zuzendaritzak egin behar du.

Kasua edozein izanik ere, jakizu eskubidea duzula klaseak 18 ordura arte baino ez emateko (hala baitago araututa). 18 irakastorduz baino gehiago aritu bazara lanean, gomendatzen dizugu Hezkuntzan erreklamazioa jartzea, zure eskubidea da.

Deitu lasai asko **STEILAS**era, zure kasu partikularra aztertu eta orduak nola bana ditzakezun azalduko dizugu (betiere ikastetxeak berak aurreikusi eta egin ez badu).

* Jardun herenari 6 irakastordu dagozkionez, 5 ordu horiek beste ordu batekin osatuko dira ikastetxean.

** Pertsona horrek kontratu-aldaketari uko egin ahal izango dio, baldin eta lanaldi osorako SOILIK izena eman badu.

Senideen gaixotasun larri edo heriotzagarriko lizentzia

Heriotza			
Senide-mota	Gertaera non		
	Udalerrri berean	Beste udalerrri batean, 150 km baino gutxiagora arte	Beste udalerrri batean, 150 km baino gehiagora
Ezkontidea Bikotekidea Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak Aitagin-amaginarrebak	3 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
2. mailako senideak	3 lanegun	4 lanegun	4 lanegun + 1 egun natural
Maila urrunagoko senideak, elkarrekin biziz gero	3 lanegun	3 lanegun	3 lanegun + 2 egun natural

Gaixotasun larria, ospitalizazioa edo etxean atsedean hartzea behartzen duen ospitalizazio gabeko ebakuntza			
Senide-mota	Gertaera non		
	Udalerrri berean	Beste udalerrri batean, 150 km baino gehiagora	Beste udalerrri batean, 150 km baino gehiagora.
Ezkontidea Bikotekidea Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak Aitagin-amaginarrebak	3 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
2. mailako senideak	2 lanegun	4 lanegun	4 lanegun
Maila urrunagoko senideak, elkarrekin biziz gero	2 lanegun	2 lanegun	2 lanegun + 2 egun natural

Ebakuntza: medikuaren ziurtagiriarekin egiaztatu beharko da.

Etxean atsedean hartzea: ebakuntzaren mediku-ziurtagiria + atsedena justifikatzen duen medikuaren txostena.

Beste udalerrri bat: langilearen bizilekua ez dena. Adibideak:

Langilea Agurainen bizi da, gurasoa Gasteizen bizi da eta ospitalea Gasteizen dago:
5 lanegun.

Langilea Gasteizen bizi da, gurasoa Agurainen bizi da eta ospitalea Gasteizen dago:
3 lanegun.

Ingresoagarriko baimena senidea ingratsatuta dagoen bitartean hartuko da; eta baimena amaitu aurretik alta ematen badiote, baimena une horretan bertan amaituko da.

Ordezkoen hurrenkera nola ulertu

Hautatutako lurralde, lanaldi eta gainerako informazioaren inguruko xehetasunak

Non egin nahi dituzu ordezkapenak?

Araba: bai (Lanaldia: osoa eta murriztua) Gipuzkoa: bai (Lanaldia: osoa eta murriztua)
Bizkaia: ez (Lanaldia: zehaztu gabe)

Informazio egiaztatua*

Hizkuntza-eskakizuna: 2. HE Zeinu-mintzaira: 0 maila Ingelesa: ez Frantsesa: ez

Eskola emateari buruzko informazioa**

Hizkuntza-eskakizuna: 2. HE (edo txikiagoa) Ingelesa: ez Frantsesa: ez

* Tituluen bidez egiaztatu duzun informazioa da. ** Zerrendetan izena ematean egin duzun hautaketa da.
Informazioa sortu den eguna eta ordua: 2021/09/29 – 08:04:23

Maila-kodea	Ikasgaia	Ikasgai-kodea
20	Curriculum desberdinak eratzeko. Hizkuntza-gizart.	0986

Araba • Ordena-zenbakia: 00929

Lanpostuaren lanaldi-mota	Plazaren hizkuntza-eskakizuna (HE)		
	PL 0	PL 1	PL 2
Osoa	57	57	57
Murriztua	37	37	36


Gipuzkoa • Ordena-zenbakia: 01108

Lanpostuaren lanaldi-mota	Plazaren hizkuntza-eskakizuna (HE)		
	PL 0	PL 1	PL 2
Osoa	75	73	72
Murriztua	53	52	50

Nola irakurri?

- Tauletan jasotzen diren zenbakiak norbera baino lehenago ordezkapenak egiteko prest dauden hautagaien kopurua adierazten dute.
- Ordena-zenbakia: hautagaiak zerrenda horretan duen postua.
- PL (perfil lingüístico). - HE (hizkuntza-eskakizuna).

Odol-ahaidetasunaren organigrama




42. artikulua

Norberaren edo senitartekoren baten ezkontzagatiko lizentzia


Ezkontza: 20 egun (ezkontza-eguna barne)

1. + 2. mailako senideen ezkontzagatik:
egun bat (ezkontza-eguna) + 2 egun natural,
150 km baino urrunago bada.

Haurdunaldia



Erditzeko unea



Gurasotasun-lizentzia

Ama biologikoaren* jaiotzagatiko baimena; adopzioagatiko, adopzio aurreko zaintzagatiko, edo harreragatiko baimena, aldi baterakoa zein iraunkorra; eta guraso ez-biologikoaren seme-alabaren jaiotzagatiko, adopzio aurreko zaintzagatiko, harreragatiko edo adopzioagatiko baimena.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute. 2 aste gehiago (guraso bakoitzeko bat) haur gehigarri bakoitzeko eta 2 aste gehiago umea ezgaitua bada.

Baimen hauek intrasferibleak dira

	Ama biologikoak	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoak	Nola hartu behar dira asteak?
		2021	
Nahitaezko zatia	6 aste	6 aste	Etenik gabe. Umea jaio eta jarraian
Borondatezko zatia	10 aste	10 aste	Etenik gabe edo zatika (salbuespenak daude)
Hobetutako zatia	2 aste	2 aste	Etenik gabe (salbuespen bat dago)

NAHITAEZKO ZATIA (6 aste): haurra jaiotzen den egunetik edo adopzioa, adopzio aurreko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen denetik gozatuko da; 6 asteak etenik gabe eta umea jaio den egunetik zenbatzen hasita.

BORONDATEZKO ZATIA (10 aste): bi modutan har daiteke, etenik gabe edo zatika.

Etenik gabe, aste guztiak jarraian. Aldez aurreko baldintzarik gabe.

Zatika hartzen bada, baldintzak honako hauek dira:

- 1. baldintza:** guraso biek lan egin behar dute, edo paroa kobratzen egon.
- 2. baldintza:** guraso biek errespetatu behar dute **nahitaezko zatia**; 6 aste dira 2021ean.
- 3. baldintza:** nahitaezko 6 asteak igarotakoan, gainerako asteak eskatu ahal izango dituzte nahi dutenean, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:
 - 15 laneguneko aurreabisua. Baimenaren epe bakoitza gozatu baino **15 lanegun lehenago** egin behar da eskaera, edo eskaera bakarrean jakinarazi beharko dira baliatzeko epe guztiak.
 - Baimena, nahitaez, **asteka** hartu beharko da; umeak 12 hilabete bete arte, gehienez ere.
 - Baimena zatika hartzen denean, eskaerarekin batera, Gizarte Segurantzaren ebazpena aurkeztu beharko da (salbuespen gisa, baimena zatikatzeke Gizarte Segurantzaren aurkeztutako eskaera) eta beste gurasoaren bizitza laborala (Hezkuntza Saileko langilea ez denean).


HOBETUTAKO ZATIA (2 aste): guraso biek hobetutako asteak oinarritzko araudiko azken borondatezko astearen ondoren hartu beharko dituzte, jarraian.

Salbuespena: hobetutako zatia jarraian hartzeko derrigortasun horretatik salbuetsita daude kontratu amaiera jakin bat dutenak. Horiek hurrengo izendapenean edo kontratu berria hasitakoan, berehala, jarraituko dute baimenarekin, agortu arte (haurrak 12 hilabete bete aurretik). Betiere, 15 lanegun lehenagoko eskaera errespetatuz.

STEILASen legeak baliatutako *ama biologikoa* terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?


Edoskitzea



* Kalkulua ondo egin ahal izateko, edoskitze metatua eskatzerakoan, eskatzaileak nahitaez jakinarazi beharko ditu umeak 12 hilabete bete arte hartuko dituen lizentzia, baimen, hartu gabeko opor eta eszedentziak.


** Ordezkapenen adibideak: IRALE bat egiten dagoen irakaslea ordezkatzea, amatasunean dagoen irakaslea ordezkatzea...

Edoskitze metatua nahitaezko zatia (lehen 6 asteak) amaitu aurretik eskatu beharko da



Gurasotasun-lizentzia eta gero, zer?

Ordezkoak




Suerta daitekeen kasuistika, adibideak:

- > Irailaren 1ean gurasotasun-lizentzian/edoskitzean/arriskuko haurdunaldiagatik bajaran egongo bazara, zure lurralde ordezkaritzan jakinarazi behar duzu ikasturte hasierako esleipen-prozesurako eskabideak aurkezteko epea hasi baino bost egun lehenago; hau da, irakaslegunean lanpostuak eskatzeko epea baino 5 egun lehenago (orokorrean abuztuaren lehen astearen amaieran).
- > Kontratupean EZ egonda haurra jaiotzen bada, sisteman erregistratuta dagoen egoera aldatu egin behar da, JUSTIFIKATU GABEKO UKO EGITEAri dagokion laukitxoan klik eginez. Ondoren, familia-liburua aurkeztu behar da lurralde-ordezkaritzan eta JUSTIFIKATUTAKO UKO EGITEA egoerara pasatuko da.
- > Gurasotasun-lizentziak iraun bitartean, nahitaezko zatia igaro ondoren, lanposturen bat esleituz gero, ez da ordezkapena egin beharko eta kontratuari dagokion puntuak jasoko dira.

Eszedentzia eta zerbitzuak aldi baterako etetea

	Eszedentzia (seme-alabak zaintzeko)	Zerbitzuak aldi baterako etetea (Suspension transitoria)
Nork	Karrerako funtzionarioek. Behin baino ezin da eskatu, eta umeak hiru urte bete arte luzatuko da, gehienez ere.	Bitarteko funtzionarioek. Behin baino ezin da eskatu, eta umeak hiru urte bete arte luzatuko da, gehienez ere.
Lanpostua gorde	Bai.	Ikasturte osoko lanpostu hutsa bada, bai. Ikasturtero lanpostu huts berria lortu beharko da.
Gizarte Segurantzari kotizatu	Bai (jubilazioarako).	Ez.
Antzintasuna	Bai (hirurtekoetarako).	Ez.
Puntuatu	Bai (karrerako funtzionario moduan puntuatzeko, lekualdatzeetarako).	Bai (ordezkogaiak kudeatzeko zerrendaren baremorako). <ul style="list-style-type: none"> • Kontratuak iraun bitartean, jarduneko zerbitzutzat hartzen denez, dagokion puntuazioa lortuko da. • Kontratua ikasturtea baino motzagoa bada, etenaldia bete zuen ordezkoak ikasturte horretan zehar egindako lanari dagokion puntuazioa gehituko da.

Lan-istripuak, nola jokatu



Zer da lan-istripua? Langileak, lanean ari dela edo lanaren ondorioz, jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

Lan-istripuen barruan, "in itinere" istriputzat joko da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Zer da intzidentzia? Edozein jardueratan aritzean eman daitekeen edozein egoera, lesiorik eragin ez, baina lesioak eragin ditzakeena. (Segurtasuneko laguntzaileari komunikatu eta erregistratu behar dira).

Gaixotasun profesionala: irakasleon kasuan, noduluak besterik ez.

Lan-istripua, baja eragiten duena: lan-istripu baten ondorioz, baja hartu behar izan bada, lansariaren % 100 kobratuko da.

Nomina (2021)

Nominaren kontzeptuak lau multzotan sailka ditzakegu, hobeto ulertzeko:

- A.** Denok kobratzen ditugun kontzeptuen kodeak: 1000, 2004, 2103 eta 2108.
- B.** Antzintasun-kodeak: 1020, 1027, 2130, 2135 eta 2140.
- C.** Kargu-kodeak: 2145 (mota ezberdinak daude kode honekin).
- D.** Maisu-maistren gehigarrienak (DBH/EPA): 2640 eta 2146 kodeak.

Sortzapenak

Jaso behar duguna (eurotan eta hilabetero)			
Kodeak eta kontzeptuak	Maisu-maistrak	LHko irak. teknikoak	BH/HEOko irak.
1000 Soldata	1.050,06		1.214,39
1020 Antzintasuna (hirurtekoak)	38,12		46,74
1027 Oinarrizko aldea (hirurtekoak)	8,03		9,17
2004 Lanpostu-mailako osagarria	613,83	770,42	
2103 Berariazko Osagarria	616,53	816,38	697,99
2108 CE Kapitalizazioa	277,27 (denok kobratzen dugu)		
2130 CE 1er grado esp. Ded.	84,74 (6 urteko zerbitzuak izanez gero)		
2135 CE 4º grado esp. Ded.	50,55 (24 urteko zerbitzuak izanez gero)		
2140 CE 5º grado esp. Ded.	41,89 (30 urteko zerbitzuak izanez gero)		
2145 CE Adic. Cargo-Tutorea	62,45		
2145 CE Adic. Cargo-Koord.	56,75		
2145 CE Adic. Cargo-Mintegib.	56,90	56,27	81,54
2145 CE Adic. C. Zuzendaritza	(Gela, ikasle edo irakasle kopuruaren arabera)		
2640 CD Adic. Maisu-Maistra DBH	156,59		
2146 CD Adic. Maisu-Maistra EPA	70,17		

Azalpenak GSko kotizazio-oinarrien atalean

Siglak: **LI** Lan-istripua **LG** Lanbide-gaixotasuna **AT** Accidente laboral **EP** Enfermedad profesional

Atxikipenak (deskontatzen dutena):

Denok: 401 PFEZren gaineko atxikipena (IRPF): sortzapenen ehuneko bat da. Urtean behin, langileak urte horretarako ehunekoia igotzeko eska dezake.

GSkoek: 350 Trab. cont. comunes: erretirorako eta osasun-asistentziarako kotizazioak. Sarrera gordinen % 4,7.
370 Trab. desempleo (bitarteko funtzionarioek soilik): sarrera gordinen % 1,55.
380 Trab. formac. profesional: sarrera gordinen % 0,1.

MUFACEkoek: 9360 Eskubide pasiboak: erretirorako kotizazioa.
9350 MUFACE: osasun-asistentziarako eta prestazioetarako kotizazioa.

Aparteko ordainsarrietan (ekainean eta abenduan):

- Oinarrizko aldea (1027) ez da kobratzen.
- Oinarrizko soldataren (1000) eta hirurtekoen (1020) % 72 (A1 taldekoek) eta % 61 (A2 taldekoek) jasotzen da.
- Beste kontzeptuak berdin kobratzen dira.



www.steilas.eus